

## 248. NAO - 2013ko abenduaren 27a

### 1. ORDENANTZA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

#### **XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua. Ordenantza hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 165.etik 171.era bitarteko artikuluetan xedatutakoaren babesean ezarri da.

Zerga hau zeharkako tributua da.

#### **ZERGAPEKO EGINTZA**

2. artikulua. Zerga honen zergapeko egintza da udal mugapean zernahi eraikuntza, instalazio edo obra egitea, baldin hartarako beharrezkoa bada hirigintza edo obra lizentzia bat, lizentzia hori erdietsia izanik ala izan gabe, edo erantzukizuneko aitorenaren edo hartarako aurretiazko komunikazioaren aurkezpena eskatzen bada, baldin eta Barañaingo Udalarari badagokio lizentzia ematea edo kontrola.

Zergari atxikitako zergapeko egintzat har daitezke hauek:

- 1) Edozein motatako eraikinak eta instalazioak, oin berrikoak, egiteko obrak.
- 2) Lehendik dauden eraikinak edo instalazioak handitzeko obrak.
- 3) Lehendik dauden eraikinen edo instalazioen egitura edo kanpoko itxura ukitzen duten obrak, aldatzekoak edo berritzekoak.
- 4) Eraikinen barneko egitura aldatzen duten obrak, edozein izanik ere duten erabilera.
- 5) Behin-behinekoz egin beharreko obrak.
- 6) Zerbitzu publikoak paratzeko obrak.
- 7) Lur mugimenduak, hala nola, zelaitzeak, hondeatzeak eta betelanak, baldin onetsia edo baimendua den urbanizazio edo eraikitze proiektu barneko obra gisa zehaztu eta programatu ez badira.
- 8) Finkak ixtea.
- 9) Eraikinak botatzea, aurri egoeran deklaratuak izan ezik.
- 10) Zorupea ukitzen duten obrak edo instalazioak.
- 11) Eremu publikotik ikusten diren propagandako kartelak paratzea, betiere lokal itxietan ez badaude.

12) Zernahi obra, eraikuntza edo instalazio, ahalmen ekonomiko baten adierazgarri diren baliabi ekonomikoen inbertsioak ekartzen dituztenak eta obra lizentziari lotuak, edo erantzukizuneko aitorpena edo aurretiazko komunikazioa behar dutenak.

3. artikulua. Zernahi eraikin, instalazio edo obra egitea salbuetsirik egonen da baldin eta horien jabeak badira Estatua, Nafarroako Foru Komunitatea, autonomi erkidegoak edo toki entitateak, eta baldin, zergapekoak direlarik ere, zuzenean erabiltzekoak badira errepide, burdinbide, portu, aireportu, lan hidrauliko, hiri saneamendu edo haien hondakin uren saneamendurako, nahiz eta erakunde autonomoek kudeatzen dituzten, dela eraikuntza berriko lana, dela kontserbaziozkoa.

### **SUBJEKTU PASIBOAK**

4. artikulua.

1) Zerga honen subjektu pasiboak honako hauek dira, zergadun gisa: pertsona fisiko nahiz juridikoak, herentzia banatu gabeak, ondasun elkarateak, eta nortasun juridikorik ez dutelarik, obraren jabetasuna duten bertze entitate, unitate ekonomikoa edo ondare banandua osatzen dutenak.

2) Barañaingo Udalaren aitzinean argi eta garbi egiaztatzen ez bada obraren jabea obra horretako eraikinaren jabeaz bertze pertsona edo entitate bat dela, eraikinaren jabea hartuko da obraren jabetzat.

5. artikulua. Zergadunaren ordezkotako subjektu pasiboak dira hartarako lizentzia eskatzen dutenak edo eraikuntza, instalazio edo obrak egiten dituztenak, ez baldin badira zergadunak berak.

### **ZERGA-OINARRIA**

6. artikulua.

1) Zerga-oinarria eraikin, instalazio edo obraren kostu erreal eta benetakoa da.

2) Aurreko zenbaki horretan xedatutakoaren ondorioetarako, kostu erreal eta benetakoa obra gauzatzeko aurrekontuaren arabera zehaztuko da, ordainsariak eta industria-mozkina kenduta.

### **KUOTA**

7. artikulua. Zerga honen kuota izanen da zerga-oinarriari ordenantza honetako eranskineko karga mota ezartzetik heldu dena.

### **SORRARAZPENA**

8. artikulua. Zerga hau eraikina, instalazioa edo obra hasten delarik sorrarazten da, hartarako lizentziarik lortu ez bada ere.

### **KUDEAKETA ARAUAK**

9. artikulua. Aginduzko lizentzia ematen denean, behin-behineko likidazioa egingen da. Haren zerga-oinarria behar den elkargo ofizialak ikus-onetsita aurkeztu den aurrekontuaren arabera izan daiteke, edo, aldiz, exekuzio proiektuaren kostuaren arabera, udal teknikarien kalkuluei jarraikiz.

Hasierako proiektua dagokion lizentzia eman ondoren aldatzen bada, lizentzia aldatzeko eskaera aurkeztu behar da, aurrekontu berriarekin batera, behin behineko likidazio berria egiteko, aurrekontuan izandako aldaketaren arabera, hasierakoa gainditzen duen kopuru berean.

10. artikulua.

1) Ikusirik egiazki egin diren eraikuntzak, instalazioak eta obrak, baita horien benetako kostu eraginkorra ere, Udalak, hala behar denean, behin-behineko zerga-oinarria aldatuko du eta behin betiko likidazioa egiten; hori egin ondoren, subjektu pasiboari eskatuko dio paga diezaion edo, hala behar denean, gehiegi jarritakoa itzuliko dio.

2) Aurreko atalean xedatutakoari dagokionez, obra bukatu edo behin-behinekoz jaso eta hurrengo hilabetean, inguruabar horren berri ematen duen deklarazioa aurkeztuko da eta horrekin batera eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostu eraginkorra eta obraren zuzendari fakultatiboak emandako ziurtagiria ere bai, bidezkoa denean behar den lanbide elkargoak ikus- onetsia, zeinean obraren kostu osoa egiaztatuko baita.

11. artikulua. Zergaren likidazioaren ondorioetarako, berdin jokatu da administrazioaren isilbide positiboaz eman diren lizentziekin eta berariaz eman direnekin.

12. artikulua. Lizentziaren titularrak baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak egiteari uko egiten badio, idatziz aurkeztutako berariazko ukoaz, Barañaingo Udalak, hala behar denean, pagatutakoa itzuliko du.

Halaber, lizentzia iraungi ondoren, Barañaingo Udalak egindako likidazioa deuseztatuko du eta, hala behar denean, itzuliko, non ez duen titularrak lizentzia horren berritzea eskatzen eta Udalak baimentzen.

## **ERANSKINA**

### **2017KO KARGA-TASA**

Ondoko tasa ezarri da: %5.